

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

- 3818** *Huts-zuzenketa, honako honena: 6/2017 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, Unibertsitatetik kanpoko irakasleen, unibertsitate-irakasleen, Indar Armatuena, Estatuaren Segurtasun Indar eta Kidegoen eta autonomia-erkidegoen menpeko polizia-kidegoen 2017ko lan-eskaintza publikoa onartzen duena.*

Hutsak atzeman dira martxoaren 31ko 6/2017 Errege Lege Dekretuan (Unibertsitatetik kanpoko irakasleen, unibertsitate-irakasleen, Indar Armatuena, Estatuaren Segurtasun Indar eta Kidegoen eta autonomia-erkidegoen menpeko polizia-kidegoen 2017ko lan-eskaintza publikoa onartzen duena), zeina 2017ko apirilaren 1eko *Estatuko Aldizkari Ofizialean* (78. zk.) argitaratu baitzen; hortaz, zuzenketa hauek egiten dira:

11. orrialdean, (m) oharraren lehen eta bigarren lerroetan, hau dioen lekuan: «Karrerako militarrei eskainitako 18 plazetatik eta tropako eta marineltzako militarrei eskainitako 29 plazetatik 6 eta 15, hurrenez hurren, gordeko dira...»; hau esan behar du: «Karrerako militarrei eskainitako 21 plazetatik eta tropako eta marineltzako militarrei eskainitako 26 plazetatik 6 eta 12, hurrenez hurren, gordeko dira...».

Orrialde berean, (n) oharraren lehen eta bigarren lerroetan, hau dioen lekuan: «Karrerako militarrei eskainitako 4 plazetatik eta tropako eta marineltzako militarrei eskainitako 10 plazetatik 2 eta 6, hurrenez hurren, gordeko dira...»; hau esan behar du: «Karrerako militarrei eskainitako 7 plazetatik eta tropako eta marineltzako militarrei eskainitako 7 plazetatik 2 eta 3, hurrenez hurren, gordeko dira...».

Orrialde berean, (o) oharraren lehen eta bigarren lerroetan, hau dioen lekuan: «Karrerako militarrei eskainitako 4 plazetatik eta tropako eta marineltzako militarrei eskainitako 11 plazetatik 2 eta 8, hurrenez hurren, gordeko dira...»; hau esan behar du: «Karrerako militarrei eskainitako 7 plazetatik eta tropako eta marineltzako militarrei eskainitako 8 plazetatik 2 eta 5, hurrenez hurren, gordeko dira...».